

TOLOSALDEKO hitza info

Ostirala, 2013ko irailaren 20a. IX. urtea. 2.647. zenbakia. tolosaldea.hitza.info



Tolosako ikastetxeetako ordezkariak, Galtzaundi Euskara Batzordeak, Aitzol Udal Euskaltegiak eta udal ordezkariak aurkeztu dute egitasmoa. ITZEA URKIZU

Martxan da euskaraz ez dakiten gurasoei zuzendutako egitasmoa

Tolosako Udalak, hiru ikastetxeek, Galtzaundi Euskara Batzordeak eta Aitzol Udal Euskaltegiak 'Familia bidezko hizkuntza transmisioa' deitu diote proiektu berriari ◊2

Intxurre taldeak bi talde gehiago izango ditu denboraldi berrian

Alegiako futbol taldeak hasi du denboraldi berria, eta zazpi talde izango ditu aurten; Segurako III. Koba Tours txapelketa irabazi dute ◊3

Gaurtik hasita herensugeak festa egunak ekarriko ditu Irurara

18:30ean lehertuko da suzuria eta ondoren haur eta helduen danborrada izango da; bi asteburutan banatu dituzte jaiak ◊6

Tolosako guardia zibil buru ohia atxilotzeko agindua eman du, Argentinak

Jesus Muñecas inputatu du Frankismoko krimenak egotzita Servini epaileak ◊5

AHORA!
TOLOSALDEKO BIZIBIRA
HAIZE GARBIA, HAU DA ZURE MUGIMENDUA
KILOMETROAK 13-REN ALDE
IRAILAK 22
TOLOSALDEKO BIDEGORRIAN
BARRENA IBILALI HERRIKOIA

Abiapuntua IKASTEGIETA
Helburua ANOETA
Abiapuntua ASTEASU

10:30 11:30 10:30

Herririketako, kultura eta kirola eta 2013. urteko



Tolosako ikastetxeetako ordezkariak, Galtzaundi, Aitzol eta udalekoekin batera, agerraldian. I. URKIZU

Gurasoak euskaldunduz Tolosa euskaldunagorantz doan proiektua

Saio eta material bereziak prestatu ditu Aitzol Udak Euskaltegiak, gurasoen beharrei begira

Iztea Urkizu

Tolosako haur gehienek, D ereduari hasten dituzte ikasketak gaur egun, eta txikitatik euskara ezagutzen dute, ikastetxean behinik behin. Euskararen transmisio hori bestelako esparruetara zabaldu, eta eguneroko bizitzarako tresna izatera pasatzeko, ordea, euskaraz ez dakiten gurasoak euskalduntzeko beharra ikusi dute herriko zenbait eragilek. Hori lortu ahal izateko egitasmoa prestatu dute, beraz, Hirukide ikastetxeak, Laskorain ikastolak,

Samaniego ikastetxeak, Aitzol Udak Euskaltegiak, Tolosako Udaleko Euskara Batzordeak eta Galtzaundi Euskara Taldeak, elkarlanean.

0 eta 6 urte bitarteko neska-mutilen gurasoei begirako proiektua da *Familia bidezko hizkuntza transmisioa* deiturikoa, eta abian jarri dute jada. Sustatzaileek, besteak beste, «familiak gure bizitzako lehen urteetan izugarriko garrantzia» duela nabarmendu dute, eta hori, noski, hizkuntza-jabekuntza aroarekin lotu dute: «Jaio bezain azkar hasten gara inguruarekiko harremanetan, eta hizkuntzak mundua sentitzeko, beharrak adierazteko nahiz jolasteko aukera eskaintzen dizkigu. Garai horretan, harreman eta lotura nagusiak familiarekin izaten ditugu, eta beraz, hizkuntza bera ez ezik, hizkun-

tzarekiko interesa ere irakasten da familian».

Honi lotuta, bestalde, euskara ongi ikasteak gerora beste hainbat hizkuntza ikasteko ekar dezakeen erraztasuna ere hizpide izan dute: «Eleanitzak izateko bidea irekiko diegu».

Gurasoek euren artean euskaraz aritzearen garrantziaz gain, ordea, lagunartek nahiz aisialdiak hizkuntza baten ikaskuntza baldintza dezaketela azpimarratu dute. Horregatik guztiatgatik, euskaraz ez dakiten guraso horiek «ohartarazi» nahi dituzte egitasmoa sustatzaileek, «aukera dutenean, eskolan ikasten dute-na osatu, eta eskolaz kanpo ere balia dezaten».

Finean, familiarik abiatuko den bidea hasi, eta euskara eskolara, kalera eta aisialdira iristea lortu nahi du egitasmoak, hainbat tresnaren bidez: «Euskaraz irakasten duten ikastetxeetan matrikula egiteaz harago, seme-alabak euskarazko jardueretara bultzatzea, eta euskaraz eginez haurrentzako eredu izatea lortu nahi dugu proiektuaren bidez», nabarmendu du Idoia Lahidalga

Galtzaundi Euskara Taldeko ordezkariak.

Lau bide helburu bati begira

Hizkuntzaaren transmisio hau euskarazkoa izatea bermatzeko, abian jarri dituzte eragileek, aurreikusitako tresnak.

Horrela, pausoetan lehena, zenbait eskuorri banatzea izan da. Euskaraz ez dakiten 0 eta 6 urte bitarteko haurren gurasoei begira, zenbait gomendio bildu dituzte eskuorrian, eta Tolosako ikastetxeek banatu dituzte jada. Besteak beste, euskara ikastearen garrantzia, eta gutxi jakinda edo trakets sentituta ere, berau ahoz praktikatzeko duen balioa azpimarratu diete gomendioetan, beren seme-alabei begira.

Aipatzekoa da, gainera, Hirukide, Laskorain eta Samaniegoko irakasleek gomendio hauek landuko dituztela, euskaraz ez dakiten gurasoekin.

Euskalduntze prozesuarekin erabat loturiko proiektua izanik, Aitzol Udak Euskaltegiak ere esfortzu berezia egin du elkarlan honetan, eta horrela, zatirik teknikoenean jardungo dute eurek,

Amando Hernandez euskaltegi-ko zuzendariak azaldu duenez.

«Urteetan barrena saldu izan da, euskara ikastea erraza dela, segituan barneratzen dela... Badakigu hori ez dela guztiz egia, izan ere, euskara nahiz beste edozein hizkuntza ikasteak lana eta esfortzua eskatzen ditu», nabar-

Euskaraz ez dakiten gurasoei gomendio zerrenda banatu dute jada ikastetxeetan

men du Hernandezek. Horregatik, euskaraz ez dakiten gurasoei bidea errazteko bereziki prestaturiko saio eta materiala eskainiko ditu Aitzolek, datorren urritik ekainera bitarte.

Haurrekin erabilgarria izango den edukia jorratuko dute, «jolasak, abestiak, denborapasak eta eskolako materiala seme-alabekin euskaraz partekatu ahal izateko».

Guraso guztien egoera hizkuntza maila desberdina izango dela aurreikusita, gainera, talde bakoitzari egokituriko edukia prestatu dute, eta Amando Hernandezek ordutegiari dagokion malgutasuna ere azpimarratu du: «Haurrak eskolan dauden bitartean izango dira saio berezi hauek, eta ikastetxeetan bertan, nahiz euskaltegian jaso ahal izango dituzte klaseak».

Euskarra ikasteak zenbait familiarientzat esfortzu ekonomikoa ekar dezakeela aurreikusita, Tolosako Udak «ahalegin berezia» egin du aurtin, eta prezioak erdira jatsi dituzte: 160 euroko matrikula ordaindu beharko dute, eta tolosarrekin, berriz, 80 eurokoa. Eskoletara joaten ez diren ikasleek, ordea, matrikula osoa ordaindu beharko dute. Eskaintza berezi honetan izena emateko epea urriko bigarren astera arte zabalik izango da, eta aipatzekoa da Ibarrran eta Asteasun ere zerbitzu bera martxan jarriko dutela.

Azkenik, eta «Tolosa euskara kohesio hizkuntza izango duen hiri bilakatzeko», Paula Kasares soziolinguistak motibazio saioa eskainiko die euskaraz ez dakiten gurasoei. Saioa datorren urriaren 15ean izango da, doan, 19:30ean, kultur etxean.

• tolosa@hitza.info

www.inmosalbide.com

SALBIDE
Higazteak

Aia. Urteanera Auzoan. 120m²-ko berraketa (4 gelako etxebizitza) eta 17.500m²-ko terrainoa. Oso polita. **Prezio onean 240.405 euro!**

Aizarnazabal. 3 logelako etxebizitza. Oso prezio onean. 24.500.000 pezeta.

Zarauz. Vista Alegre. 87m². 3 logela, 2 bainugela, terraza (9m²). **282.476€ euro!**

Zarauz. Arizbasalde. 3 logelako, 2 bainugela terraza eta trasteleku. Oso egoera onean. Altua eta eguzkitasun. 75.000.000 pezeta!

Zarauz. Añe zaharretan. Logela bateko etxebizitza. **156.253 euro!**

Zarauz. Arizbasalde plazan. 3 logelako etxea (87m²) + trasteleku (11m²) + garaje itxia (20m²). 61.562.820 pezeta. Oso prezio onean.

Zarauz. Mixelena Kalea. 3 logela, 2 bainugela, terraza eta trasteleku. Ilogelako eta gara. **352.425€ euro!**

Bizkaia kalea, 6 - 20800 Zarauz - Tel: 943-01 07 00 - Mug: 665-71 85 96

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Aresoko Udala

2013ko URRIAREN 20AN
BIRKARGO DIA-USA
ARESO (NAFARRAJA)

Tel: 945 32 12 7 - 40 81 28 20
Donostia 20 minututara

Paratzen ari zirela: **10:00**
Eskaintza: **10:00** - **11:00**
Eskaintza: **11:00** - **12:00**
Eskaintza: **12:00** - **13:00**
Eskaintza: **13:00** - **14:00**
Eskaintza: **14:00** - **15:00**
Eskaintza: **15:00** - **16:00**
Eskaintza: **16:00** - **17:00**
Eskaintza: **17:00** - **18:00**
Eskaintza: **18:00** - **19:00**
Eskaintza: **19:00** - **20:00**
Eskaintza: **20:00** - **21:00**
Eskaintza: **21:00** - **22:00**
Eskaintza: **22:00** - **23:00**
Eskaintza: **23:00** - **24:00**



Bidegoian herria aurkeztu dute 'Destination EH' lehiaketara. HITZA

Bidania-Goiatzetik botoa eskatu dute, eskola txikien jairako

Gaztea Irratiko 'Destination EH' lehiaketan parte hartu dute Bidania-Goiatzeko herritarrek

A. Imaz Bidegoian

Bidania-Goiatzeko eskola txikien festaren harira, herritarrek bideo lehiaketa batean parte hartzea erabaki zuten, eta orain, eskualdeko herritarrei laguntza eskatu diete, euren aldeko botoa eman dezaten.

Gaztea Irratiko *Destination EH* lehiaketan parte hartu dute Bidania-Goiatzekoek. Lehiaketa horretan, norberaren herria saldu behar da, eta eskola txikiko kideei ideia sortu zitzaien: «Aukera bikaina ikusi genuen gure herria, Bidania-Goiatz, ezagutaraztearekin batera 2014ko Eskola Txikien festa egingo den herria aurkezteko». Lehiaketak bi sari ditu, bata epaimahaiarena, 1.000 eurokoa, eta bestea entzuleena, 1.500 eurokoa.

Eskolari laguntzeko asmoz aritu dira lanean, jaiko antolatzaileen esanetan: «Bidania-Goiatzeko txokoak grabatzen ibili gara eta azkenean nahiko bideo txukuna atera zaigula uste dugu. Bideo hori finalera iritsi da, hogeien artean sailkatuz, eta orain publikoaren saria lortzeko guztion beharra dugu».

Laguntza emateko ez da ezer asko egin behar, nahikoa baita ondorengo webgunean sartu, eta bideoaren alde botoa ematea:

www.eitb.com/eu/gaztea/destination-eh/. Bideoak Bidania-Goiatz izena dauka, eta botoa emateko azken eguna irailaren 27a da. Bideo egileek azaldu dutenez, egunean helbide elektronikoko bakoitzetik behin bakarrik eman daiteke botoa. Aipatu bezala, sariren bat lortuz gero, helburua argia izango litzateke: «2014ko Bidania-Goiatzeko Eskola Txikien festa finantziazteko erabiliko genuke. Horregatik, guztion beharra daukagu. Lotsagabe-lotsagabe zuen botoen bila gabiltza eta zuen lagunenak, ezagunenak, lankideenak... ere ongi etorriak izango dira. Beraz, lantxo hori jartzen dizuegu».

Azkenik, eskerrak eman dizkie era batean edo bestean bideoa egin lagundu dieten herritar guztiei: «Zuen laguntzarik gabe hau ez zelako posible izango».

Auzolana, San Pedroburun

Datorren astean hasiko dira Zehazten ZK enpresako kideak bigarren indusketa lanak egiten San Pedroburun. Arkeologoek beraien lana errazago eta erosoago egin dezaten, Bidania-Goiatz herritaren ekarpenetako bat, bertako belarrak eta sasiak moztea izango da. Lan hori auzolanean egin nahi dute, eta horretarako deialdia luzatu du udalak.

Auzolanerako hitzordua bihar, hilak 21, 09:00etan jarri dute Bidaniako plazan. Udaletik herritar guztiei deialdia egin diete, bertara ager daitezen eskatuz: «Gure herritaren historiaren parte garrantzitsu honen ikerkuntzan denok lagundu dezakegu».



Infantil txikiek partida ikusgarria jokatu ondoren lortu zuten garaipena Seguran, iragan larunbatean. HITZA

Bost talde izatetik zazpi izatera pasako da Alegiako Intxurre Futbol Taldea

Segurako III. Koba Tours txapelketa irabazi du Intxurrek, aurre denboraldiko prestaketaren barruan

Asier Imaz Alegia

Intxurre Futbol Taldea hasi da denboraldi berriko entrenamenduekin. Aurtengoan, berrikuntza pozgarri batekin datoz alegiarrek, izan ere, bi talde gehiago izango dituzte. Iazko denboraldian bost mailatan aritu ziren lehiatzen, eta aurtengoa, zazpi futbol talde edukiko dituzte.

Aurre denboraldiko lehen txapelketa iragan larunbatean jokatu zuten Intxurrekoek, Seguran, hain zuzen ere. III. Koba Tours izeneko torneoan Alegiako bost talde aritu ziren lehiatzen, eta hauetatik hiruk euren partidak irabazi zituzten. Horri esker, txapelketa irabaztea lortu zuten Intxurrekoek, hirugarren urtez jarraian.

Seguran, erregional mailakoek 2-4 irabazi zuten etxekoei. Jubenilek, aurkako emaitza lortu zuten, Segurak 4-2ko garaipena lortu baitzuen. Kadeteek Aitzgorri menderatu zuten 0-7ko emaitzarekin. Infantil handiek 4-2 galduta zuten Aitzgorriren aurka, eta azkenik, infantil txikiek garaipena lortu zuten Aitzgorriren aurka, 2-5eko emaitzarekin. Aipatu, nes-



Intxurreko kapitaina III. Koba Tours txapelketako koparekin. HITZA

Intxurre Futbol Taldea

MAILAZ MAILA

- **Lehen mailako erregionalak.** Santos Irazustabarrenak zuzenduko ditu.
- **Lehen mailako jubenilak.** Joxan Otañok zuzenduko ditu.
- **Lehen mailako kadeteak.** Eneko Garmendia eta Imanol Jimenezek zuzenduko dituzte.

kek ez zutela txapelketa honetan jokatu.

Intxurreko arduradunek eskerak eman nahi izan dizkie Segurakoek, urtero txapelketa honetarako eurekin kontaktu dutelako.

- **Kadete neskek.** Inmaira Artieda anoetarrak zuzenduko ditu.
- **Futbol hamaikako infantilak.** Imanol Irazustabarrenak eta Peñak zuzenduko dituzte.
- **Futbol zortzi infantil mutilak.** Hierrok zuzenduko ditu.
- **Futbol zortzi infantil neskek.** Alainez zuzenduko ditu.

Azkenik, ligari dagokionez, erregionalak, jubenilak eta kadete mutilak asteburu honetan hasiko dira lehiatzen. Kadete neskek urriaren 6an ekingo diote ligari, eta infantilen kasuan, oraindik egutegia zehazteko dago.

Iragarki laburrak

LAN BILA

Etxeko lanak. 08:00etatik 14:00etara etxeko lanak egin edota haurrak zaintzeko, esperimentzia handiko emakume eskaldunak bere burua eskaintzen

du. Kotxea ere badauka. Interes duenak, ditu 943 69 68 82 edo 606 52 19 92ra.

ETXEBIZITZA

Alokagai. Alkizan, 120 metroko

baserri zati bat alokagai dugu. Erabat berrituta dago, eta bi solairuko etxea da. 60 metro karratuko terraza dauka eta baratarako 1.000 metro ere eskaintzen ditugu. Hilero 750 euro. Deitu 619 34 93 85ra.

Argazkiak bidaltzeko azken egunak

Astelehena da argazkiak bidaltzeko azken eguna; Udako Argazki Lehiaketako zortzi finalistak asteazkenean argitaratuko dira

Harpidedunek izango dute lehen hiru argazki sarituak aukeratzeko ardura

Erredakzioa

Astelehena da XVII. Udako Argazki Lehiaketara argazkiak bidaltzeko azken eguna. Lehiaketan sartu nahi duten argazkiak thargazkiak@hitza.info helbide elektronikora bidali beharko dira hilaren 23a baino lehen.

Izen-abizenak, herria eta argazkiaren azalpena beharrezkoak izango dira. Asteazkenean, argitaratuko dira parte hartzaile guz-

tien artetik aukeratutako zortzi argazki finalistak. Ezinezkoa izango da egunkarian guztiak argitaratu ahal izatea, baina argazki guztiak webgunean ikusteko aukera izango da, Argazki Lehiaketaren atalean. Zortzi finalistaren arteko irabazlea, ordea, harpidedunen esku geratuko da.

Bozka gehien jasotzen dituzten lehen hiru argazkiek saria izango dute. Harpidedunek, bost egun izango dituzte argazki gustuko-

nari bozka eman ahal izateko. Eta bozka ematen duten harpidedunen artean ere HITZAKO materiala zozkatuko da.

Lehen argazki sarituak Bermeoko Lurdeia landetxean asteburu osorako egonaldia irabaziko du. Bigarren saria, Tolosako Beti-Alai jatetxean, bi lagunentzako asteburuko otordua izango da, eta hirugarren argazki sarituak, Larraitzen dagoen Txindokiko Itzala abentura parkerako bi sarrerak eskuratuko ditu.

Beraz, udako argazkiei azken errepaosa egiteko garaia iritsi da. tolosaldean@hitza.info

@ XVII. Udako Argazki Lehiaketan parte hartu duten argazki guztiak sarean ikusgai jarriko dira:

tolosaldea.hitza.info



Caceresko Hurdesen, igerileku naturalen alde. INMA LOPETEGI



Nafarroako Auza herrian ateratako argazkia. MARGARI URRIZA



Ansabereko Orratzak ikusten dira, Pirinioetako ibilbidean. MAIXABEL OLAZAR



Lanzaroteko Jameos del agua. ITZIAR ARRATIBEL



Pariseko ilunabarra ikus daiteke. LEIRE GARMENDIA



Lisboako tranbia, Rossio plaza inguruan. MARIAJE SORARRAIN



Istanbuleko kebab tipikoa, hau bai goxoa! OLATZ OLAZOLA

Tolosako koarteleko buru ohia atxilotzeko agindua

Jesus Muñecas Aguilar atxilotzeko agindua eman du Argentinako epaileak Frankismoko krimenak egotzita

Erredakzioa Tolosa

Frankismo garaiko lau polizia buru atxilotzeko nazioarteko

agindua eman du Maria Servini de Cubria Argentinako epaileak. Tartean aurkitzen da Jesus Muñecas Aguilar, Tolosako Guardia Zibilaren koarteleko buru izandakoa. Celso Galvan Abascal, Jose Ignacio Giralte eta Jose Antonio Gonzalez Pacheco dira beste hiruak.

Jesus Muñecas Aguilarrek (Zaragoza, Espainia, 1939) 74 urte ditu, eta Espainiako hainbat mili-

tar eta guardia zibilek 1981ean Kongresuan egin zuten estatu kolpe saioan parte hartu zuten, Antonio Tejerorekin batera. 1961ean sartu zen Guardia Zibilean, eta, besteak beste, Andoni Arrizabalaga eta Anparo Arangoa torturatu zutenetako bat izan zen. Telesforo Monzon Arrizabalagaren tortura testigantzan oinarritu zen *Itziarren semea* abestia idatzi zuenean. Arangoak ja-

san zituen torturen argazkiak munduari buelta eman zitoten, eta Muñecas Donostiara bidali zuten. Hala ere, atxilotuak torturatzen jarraitu zuten. Handik eraman zuten gero Tejerorekin Madriler. Estatu kolpe saioan parte hartzeagatik bost urteko espetxe zigorra jarri zitoten, baina 1984an atzeraz kartzela militarretik. Ondoren, hipika bat ireki zuten Valdemoron (Madril). 1994an han

Tejerori omenaldia egin zitoten. Gaur egun erretiroa hartuta dago eta gehieneko pentsioa jasotzen du.

Agindu horrekin, lau polizia horiek inputatuta daude, frankismoko krimenak egotzita. Eskariak Interpoli eta Espainiako Gobernari bidaliko dizkio Servini epaileak, eta behin agindua jasota, inputatuek Argentinara joan beharko dute.

→ Laburrak

Ikastn bitartekari zerbitzua, berriro ere abian

TOLOSALDEA › Ikasturte berriarekin batera, Tolosaldea Lanbide Heziketako Institutuko Ikastn bitartekari zerbitzua ere martxan jarri da. Laster, parte hartzen duten erakunde guztiekin harremanetan jartzen hasiko dira eta ekintzak antolatuko dituzte.

Euskal jaia antolatzeko bilera, asteartean

ANOETA › Urriaren 13an ospatuko den Euskal Jaia antolatzeko batzarra egingo dute asteartean, hilaren 24an, 18:00etan udaletxean. Bestalde, udal liburutegiak ordutegia aldatu du. Aurrerantzean, astelehenetik ostiralera 16:30etik 19:30era izango da zabalik.

Maite Aranalderentzat argazkia, igandean

IBARRA › Maite Aranalderen urtebetetzea dela eta argazkia aterako dute igandean, 12:30ean plazan. Herritar guztiei bertaratzeko deia egin diete.

Extremadurara bidaia, Bizi Nahi elkartearekin

IBARRA › Bizi Nahi erretirodunen elkarteak Extremadurara astebeteko egonaldia antolatuko du, urriaren 6an irtenda. 340 euro ordaindu beharko da pertsonako, eta Bizi Nahi elkartearen jaso ahalko da informazioa.

Bizibira egingo dute etzi ikaztegieta eta Asteasutik

ANOETA › Mugikortasun Astearen barruan, Bizibira egingo dute etzi, ikaztegiatik eta Asteasutik 10:30ean abiatuta, Anoetara iristeko. Caja Rural taldeko Amets Txurruka txirridularia eta nesken taldea ere irtegan dira ikaztegiatik, Iristaka patin elkartearekin batera. Hamaiketako, eta ipuin kontaketa ere izango dira, Anoetan.

nomina satisfaction

kutxabank **k**

1.000 euroko ordainsariak zozketatzen ditugu

Gehitu eta hobetu

Nomina Kutxabanken eduki eta abantailak gehitu. **Orain, gainera**

*1.000eko 50 ordainsari zozketatzen ditugu diru-lanerretarak, Inomina, pentsioa, autonomien ordainagiria edo langabezia-saria 2013/10/31 baino lehen Kutxabanken helbideratuta dituzten bezeroen artean. **Kontsultatu zozketaren oinarriak Kutxabanken webgunean.**

— Estuente hau indarman dagan bitartean nomina Kutxabanken lehen aldi helbideratzean dabilen bezeroentzat bakarrik da. Nomina hau ez dute zozketatu behar ezberdin ordainagiriaren aldiak, eta behar izan Kutxabanken edo Kutxabank baliokide baten erabileraren bidez. Kutxabanken Inomina, pentsioa, autonomien ordainagiria edo langabezia-saria 2013/10/31 baino lehen Kutxabanken helbideratuta dituzten bezeroen artean. **Kontsultatu zozketaren oinarriak Kutxabanken webgunean.**

Kutxabank S.A. Korta Nagusia, 30-32. 48900. I.P.N. 489003077. Bilabako Merkataritza Erregulazioaren Inbentarioa: 8278. Nomina: 88 88779. Orain, gainera. 1. Inbentarioa.

Herensugearen jaitsierarekin lehertuko da festa gaur Iruran

Haurrak eta gazteak izango dira hurrengo igandera arte iraungo duten jaietako protagonista nagusiak

Mikel Iraola Irura

Gaur arratsaldean, 18:30ean, herensugearen jaitsierarekin emango zaie hasiera Irurako Sanmielei. Aurretik, bi asteburutan banatutako festak izango dituzte irurarrak.

Festari hasiera emateko, haur eta helduen danborrada izango da gaur arratsaldeko zazpitan. Amaitu ondoren, 21:00ak inguruan, barrikotea izango da herriko plazan. Eta egunari amaiera emateko, goizaldera arte luzatuko den dantzaldia izango da Laiotz taldearen eskutik.

Bihar, berriz, goizeko bederatzietan hasiko da jai giroa, eta gazteak izango dira eguneko protagonista nagusiak. 10:45ean, Txu Txu tren eta puzgarriak jarriko dituzte. 13:30ean, berriz, gazteek soka-dantza dantzatuko dute, eta ondoren, guztiak Share Elkartean bazkalduko dute. 18:30ean, berriz ere dantza-soka eskainiko dute, eta ordubete beranduago, Ttek elektrotzarangak alaituta-

ko poteoa egingo dute herriko tabernetan zehar. 21:30ean, gazteen arteko afaria izango da, eta gauean, puntako taldeen kontzertuak izango dira entzungai plazan. Hain zuzen, Glaukoma, bere bigarren diska aurkeztuz, Xutik eta Vendetta taldeak arituko dira.

Igandean, berriz, haurren eguna ospatuko da. Goizeko hamaiaketan, Molto Grand Prix lasterketa izango da bi eta bost urte bitarteko umeentzat Ibai Ondo pasealekuan. Partaideek, motoa eta kaskoa eraman beharko dute eta egunean bertan izena eman. Goizean zehar, nahiz arratsaldean, 18:30ak bitartean, haur parkea jarriko dute Etxezarreta kalean. 17:00etan, berriz, Bike Trial erakustaldia eskainiko du munduko txapeladuna den Benito Ros-ek Loatzo plazan. Eta eguna bukatzeko, 18:30ean, sagardo-dastaketa izango da plazan.

Bigarren asteburuan gehiago

Hori lehen zatitara dagokionez. Izan ere, bigarren asteburuan ere ekitaldi anitz izango dira denen gustuetarako. Motorrak berotzeko, irailaren 26an, ostegunean, xare partidak izango dira trinkean, eta 20:00etan, Loatzo Musika Eskolako bandak emanaldia eskainiko du.

Ostiralean, berriz, umeak izan-



Soka-dantza egingo dute ohi bezala herriko gazteek. ITZEA URKIZU

go dira berriz ere protagonista nagusiak. 11:30ean, eskulan tailerak izango dituzte, eta 13:30ean, denek batera bazkalduko dute. Bazkalostean, jokoak izango dituzte, 17:00ak arte, izan ere, ordu horretan, Poxpolo ta Konpainia pailazo taldeak emanaldia eskainiko du. 18:30ean, berriz, buruhandi eta erraldoien kalejira izango da Loatzo Musika Eskolako trikitalari eta txistulariekin. 19:30ean, txistor jatea izango da Share Elkartean. Gauean, Play Back jaialdia izango da, eta bertan parte-hartu nahi duen orok musika MP3 formatuan eraman beharko du 21:30ak baino lehen. Ondoren, dantzaldia izango da Ingo al deu taldearen eskutik.

Larunbatean, hegazti harraparien ikuskizunarekin hasiko da festa. 13:00etan, dantza-soka izango da eta ondoren, herri bazkaria plazan. Bazkalostean, Kalean txarangak herriko kaleak alaitu-

ko ditu. Gauean, berriz, bertso saioa izango da Andoni Egaña, Miren Amuriza, Aitor Mendiluze eta Onintza Enbeita bertso-lari-ekin. Gai jartzaile lanetan, beriz, Amaia Agirre arituko da.

Festei amaiera emateko, irailaren 29an, San Migel egunez, diana izango da goizeko bederatzietan. Hamaiketan, meza nagusia izango da, eta irteeran, herriko dantzarien emanaldia eta hamaiketako izango dira. Seietan, Ametsetan bizi kale antzerkia eskainiko du Trapu Zaharrak taldeak, eta 19:30ean, Andoingo Joseba eta Bakartxo dantza eskolak eskainitako areto dantzen emanaldia izango da frontoian. Jaiak, herensugearen erretzearekin amaituko dira 21:00etan. Ekitaldi horretara, beltzez joateko eskatu dute.

Jaietan ere zero zabor

Bestalde, jaietan Irura garbi eta txukun mantentzeko deia egin du

udalak, zero zabor filosofia jarraituz. Horretarako, hainbat argibide eman ditu:

Alde batetik, zabor bilketaren ordutegia aldatu du. Beraz, jaiak irauten duten bitartean, eguneko zakarra 13:00etatik 15:00etara atera ahal izango da. 15:00etan jasotzen hasiko dira, 17:00ak arte. Ordu horretatik aurrera ontziak kalean ez uztea gomendatu du udalak.

Bestalde, festetan edalontzi berrirabilgarriak erabiltzea eskatu dute. Behin parranda amaituta, edalontzi horiek lurrera bota ordez, etxera eraman edo tabernara itzultzeko eskaria ere egin dute.

Azkenik, barrikoterako ez dira plater, mahai tresna eta edalontzi-rik eraman beharko, izan ere, udalak denen eskura berrirabilgarriak direnak jarriko baititu. Ondoren, guztien artean garbituko dituzte plazan bertan.

o anoetalea@hitza.info

↓ Egitaraua

IRAILAK 20, OSTIRALA

- **18:30.** Agurra, txupinazoa eta herensugearen jaitsiera.
- **19:00.** Haur eta helduen danborrada.
- **21:00.** Barrikotea. Zero zabor filosofiarekin bat eginez, eta ahalik eta zabor gutxien sortzeko, udalak platerak, basoak eta mahai-tresnak utziko dizkie erabiltzaileei eta ondoren, plazan bertan garbituko dira.
- **23:00.** Dantzaldia Laiotz taldearekin.

IRAILAK 21, LARUNBATA

- **09:00.** Gazte festaren hasiera.
- **10:45.** Txu-txu tren herrian zehar eta puzgarriak
- **13:30.** Gazteen dantza-soka.
- **14:30.** Gazteen bazkaria Share Elkartean.
- **18:30.** Gazteen dantza-soka.
- **19:30.** Poteoa Ttek elektrotzarangarekin.

- **23:00.** Glaukoma, Xutik eta Vendetta taldeen kontzertua.

IRAILAK 22, IGANDEA

- **11:00.** Molto Grand Prix lasterketa 2-5 urte arteko haurrentzat Ibai Ondo pasealekuan. Partaideek motoa eta kaskoa eraman beharko dituzte, eta horrez gain, egunean bertan izena eraman beharko dute.
- **11:30-14:00.** Haur parkea Etxezarreta kalean.
- **16:00-18:30.** Haur parkea Etxezarreta kalean.
- **17:00.** Bike Trial erakustaldia munduko txapeladuna den Benito Ros-en eskutik Loatzo plazan.
- **18:30.** Sagardo dastaketa herriko plazan.

IRAILAK 26, OSTEGUNA

- **18:00.** Xare partidak trinkean.
- **20:00.** Loatzo Musika Eskolako bandaren emanaldia.

IRAILAK 27, OSTIRALA

- **11:30.** Eskulan tailerak.
- **13:30.** Haurren bazkaria.
- **15:00.** Jokoak.
- **17:00.** Poxpolo ta Konpainia pailazo taldearen emanaldia.
- **18:30.** Buruhandi eta erraldoien kalejira Loatzo Musika Eskolako trikitalari eta txistulariekin.
- **22:30.** Play-back jaialdia. Parte hartzaileek musika MP3 formatuan eraman beharko dute 21:30erako.
- **24:00.** Dantzaldia Ingo al deu taldearen eskutik.

IRAILAK 28, LARUNBATA

- **11:00.** Hegazti harraparien erakusketa Belatz elkartearen eskutik.
- **13:00.** Dantza-soka.
- **14:30.** Herri bazkaria. Menua: txekorra, salda eta piperrada. Prezioak, 20 euro helduek, ikasle eta langabetuek 17 euro, eta

haurrek 8 euro. Txartelak salgai Trinketean eta Zaharretxean. Ikasle eta langabetuek udal-erri erosi beharko dituzte dagokien agiria aurkeztuta. 2004 eta 2010 urteen artean jaiotakoentzat zaintza zerbitzua izango da. Izena emateko epea irailaren 25ean amaituko da.

- **Bazkalostean.** Kalean txaranga ibiliko da kalez kale.
- **22:00.** Bertso saioa, Andoni Egaña, Miren Amuriza, Aitor Mendiluze eta Onintza Enbeita bertso-lari-ekin. Gai jartzailea Amaia Agirre izango da.
- **23:30.** DJ Bull.

IRAILAK 29, IGANDEA

- **09:00.** Diana txistularien eskutik.
- **11:00.** Meza nagusia.
- **12:00.** Irurako dantzarien emanaldia. Ondoren, hamaiketako herrikoia.
- **18:00.** Ametsetan Bizi kale an-

terkia Trapu Zaharrak taldearen eskutik.

- **19:30.** Andoingo Joseba eta Bakartxo dantza eskolak eskainitako areto dantzen emanaldia pilotalekuan.
- **21:00.** Herensugea erretzea. Ekitaldia girotzeko, beltzez jantzita joateko eskatzen da.

URRIAK 3, OSTEGUNA

- **16:30.** Erretirodunen jokoak Zaharren biltokian eta plazan.

URRIAK 13, IGANDEA

- **12:00.** Meza nagusia, eta ondoren, Zaharren Biltoki berriaren inaugurazio ekitaldia.
- **14:00.** Bazkaria Zaharren Biltokian erretirodun eta pensiodunentzat. Prezioa, 10 euro. Izen ematea, urriaren 10era bitarte egongo da zabalik.
- **Bazkalostean.** Jokeotako sari banaketa eta musika Biltokian.

Irudia



JATORRI ANIZTASUNAREN ARGAZKIA

Tolosaldeko herritarren jatorri aniztasunaren errealitatea ezagutzeko diagnostikoa egiten ari dira Tolosaldea Garatzen eta Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekimenak eskualdeko errealitatearen argazkia egin eta aniztasun politika egokiak garatzea du helburu. Bada, eskualdeko alkateek, Jose

Luis Urdangarin Tolosaldea Garatzeneko lehendakariak eta Marcos Nancloares, Foru Aldundiko Migrazio eta Aniztasun zuzendariak bilera egin zuten atzo, Lehiberri zentroan. Diagnostikoaren azken urratsak ematen ari dira, eta urtea bukatzerako herritarrei aurkeztea aurreikusi dute. IT.

Gutuna

Eskerrik asko guztiei!

Ibarrako Mendi Duatloiairen antolatzaileen esker hitzak laguntzaileei eta babesleei.

Ibarrako Mendi Duatloiairen antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkiete proba hau aurrera eramaten laguntzen duten guztiei. Ibarrako Kirol Elkarte eta Sendi Ekintzari, proiektu honen sustatzaile izateagatik; Ibarrako Udalarai, eskura jartzen dizkigun

baliabideengatik; Babesleei, beraiek ematen duten laguntzarik gabe proba hau aurrera ateratzerik egongo ez zelako. Bidegurutzeetan, anoa-postuetan, izen-emate mahaian edo muntaian laguntzen duten bolutarioei, beraien eskuzabaltasunagatik. Eta noski, parte hartzaile eta ikusleei. Guztiei, eskerrik asko!



→ Laburrak

Pintxo potea egingo dute gaur, 19:00etatik aurrera

BERASTEGI Hiru astetik behin egiten dute pintxo potea Berastegin, eta aste honetan egokitu da hurrengoa, gaur, hain justu. Udalak herriko tabernek in antolatutako ekimena da, eta 19:00etatik aurrera izango da 1,5 euroren truke tragoa eta pintxo hartzeko aukera.

Haur eskolan matrikula egiteko epea irekitzeaz

ELDUAIN Matrikulatzeko epea zabalik izango da Elduaingo Haur eskola Publikorako, urriaren 1etik 10era bitarte. Eskaeren inprimakiak haurreskolan bertan jaso eta utzi beharko dira. Informazio gehiagorako 943 68 35 89 telefono zenbakira deitu ahalko da.

Ibarrako gimnastika taldeak ekin dio denboraldi berriari

Dagoeneko hasi dira entrenamenduekin, baina izena eman nahi duenak aukera izango du oraindik

I. Terradillos Ibarra

Hasi da ikasturte berria Ibarrako Belabieta Gimnastika Erritmi-ko taldearentzat. Dagoeneko entrenamenduak hasi badira ere, izena emateko aukera badago. Horretarako eta ordutegiekin edo bestelako zalantzak argitzeko, 662 125 497 (Saioa) edo 657 719 533 (Laura) zenbakietara hots egin daiteke, edo bestela belabieta_ke@yahoo.es helbidera idatzi.

Txikiak (5 urte, LH1 eta 2) ostiraletan dute entrenamendua, 17:30etik 19:00etara; benjaminak (LH3 eta 4) asteazkenetan eta ostiraletan 17:30etik 19:00etara edo egun bakar batean egiteko aukera; alebinek (LH5 eta 6) astelehenean eta asteazkenetan 17:30etik 19:00etara edo egun bakar batean egiteko aukera; infantilek eta kadeteek (DBH1, 2, 3 eta 4) asteartean eta ostegunetan 17:00etatik 18:30era (taldeka) eta asteartean edo ostegunetan 18:30etik 19:30era (banaka); jubentilek (Batzilergo 1 eta 2) asteazkenetan eta ostiraletan 16:00etatik 17:30era (taldeka); eta seniorrek (18 urtetik gora) ostiraletan 16:00etatik 17:30era edo 17:30etik 19:00etara.

Esperientziak elkartrukatzeko helburuz, urriaren hasiko da Guraso Eskola

I. Terradillos Ibarra

Ibarrako Guraso Eskolak urriaren 14an ekingo dio ikasturte berriari. Nerea Mendizabal psikopedagogoak emango du, eta teoria eta ariketa praktikoen bidez gurasoen esperientziak elkartrukatzeko izango du helburu. Urriaren 4ra bitarte eman ahalko da izena, gizarite zerbitzuetan (943 67 04 15), 62 euro ordainduta. Urritik maizteraz bitarte izango da, eta hilean bi orduko saio bat emango dute. Astelehenean izango da, 14:45etik 16:45era saio irekia, eta 17:00etatik 19:00etara, *Komunikazio ez bortitza* ikastaro trinkoa egin dutenentzat.

Erretirodunen eguna ospatuko dute igande honetan, Leaburun

I. Terradillos Leaburu-Txarama

Leaburu-Txaramako erretirodunen euren eguna ospatuko dute igandean, hilaren 22an. Hasteko, meza izango dute eguerdian, eta mezaren ostean, herriko dantzarien emanaldiaz gozatu ahalko dute. Gaztetxoek dantza saioaren ondoren, erretirodunen arteko toka txapelketa egingo dute plaza bertan. Nahikoa jolas egin ostean bazkari legea egiteko elkartuko dira denak Leaburuko Zazpi Bide elkarte. Ederki jateaz gain, bertso ederrak entzuteko parada izango dute, Irazu eta Peña bertsolariak izango baitira, eta baita herriko trikitalariak ere.

Tolosaldeko HITZAn jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



21°
15°

GOIZA	LAINTUTA
ARRATSALDEA	LAINTUTA
BEROENA	20°
HOTZENA	13°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Eneritz Maiz
Egoitza: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
Faxa: 943 65 00 18
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa.
Kudeatzailea: Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona-aitzondo: 687 410 022. villabona-aitzondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info

Tolosa Herria Hedabideak SM-ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK



Galtzaurdi euskara taldea



eta Tolosaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Asteasu, Ballarain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902820201**

Agenda

GAUR

DEIALDIAK

- **Alkiza.** Herriko festen balorazioa egiteko bilera, 22:00etan, Don Juanenen.
- **Ibarra.** Mugikortasun Astearen barruan, 17:00etan, San Bartolome plazatik abiatuta, bizikleta bira izango da.
- **Tolosa.** Mugikortasun Astearen barruan, 18:30etik 19:00etara, 30eko gunetik bizikleta bira egingo dute.
- **Tolosa.** Aurten 40 urte betetzen dituztenen, hau da, 1973. urtean jaiotako enbaxkaria eta jaia egingo dute, urriaren 12an. Izena eman nahi dutenak ti1973kobelaunaldia@hotmail.com helbide elektronikora idatzi beharko du, edota facebook-eko *Berrogeiurte Tolosaldea Hirurogeitamaru* orrian. Azken eguna, urriaren 5a izango da. 12:00etatik aurrera, pintxo potea, taldeko argazkia, bazkaria eta musika izango dira.

BIHAR, LARUNBATA

DEIALDIAK

- **Amasa-Villabona.** Bizikletaren bigarren eskuko azoka izango da Berdura plazan, 10:30etik 14:00etara.
- **Amasa.** Txakolin Eguna izango da 16:00etatik aurrera. Lehenik, hiru pilota partida izango dira. Ondoren, 25 txakolindegitako txakolina dastatzeko aukera izango da pintxoaren laguntzarekin.
- **Tolosa.** Mugikortasun Astearen barruan, 17:00etan, Usabal-dik abiatuta, Poxpolo eta Konpainiak sketch bat grabatuko du. *Zein erbi zein dortoka! Zein iristen da azkarrago Plaza Berri-ra?* ekimena izango da. Ondoren, txokolate jatea.

ETZI, IGANDEA

DEIALDIAK

- **Tolosaldea.** Mugikortasun Astearen barruan, KMK 2013

eta Iristaka Patinaje taldearen laguntzarekin, Bizibira Tolosaldean izango da bidegorritik berrera. 10:30ean, Asteasu eta Ikaztegietatik izango da irteera, eta 11:30ean, Anoetara iritsiko dira bertan hamaiketako egiteko. Ipuin kontaketa eta eskualdeko bizikleta denden eskutik sari banaketa izango da. Rural Kutxa taldeko bi txirrindulari profesional ere izango dira.

- **Ibarra.** Ibarra, Azoka eta Piparra azoka berezia izango da 10:00etatik 14:00etara, Ibarra. Lehiaketak, abereak, artisauak, haurren gunea, musika, bazkaria,... izango dira.
- **Leaburu.** Erretirodunen Eguna ospatuko dute 12:00etatik aurrera.

ZINEMA

- **Tolosa.** Leidor zinema aretoan, 17:00etan Gru 2 filma ikusteko aukera izango da. Aldiz, 19:30etik aurrera, Hijos de la media noche filma hasiko da.

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Egunekoa eta gauekoa: Bronte, C. Korreo kalea, 20. Telefonoa: 943 67 60 13.

BIHAR, HILAK 21

- **Tolosa.** Egunekoa eta gauekoa: Olarreaga, I. Korreo kalea, 2. Telefonoa: 943 67 01 28.

ETZI, HILAK 22

- **Tolosa.** Egunekoa eta gaue-

koa: Azpiroz, L. Amarotz auzoa, 9. Telefonoa: 943 67 51 18.

ETZIDAMU, HILAK 23

- **Tolosa.** Egunekoa: Olarreaga, I. Korreo kalea 2. Telefonoa: 943 67 01 28. Gauekoa: Etxebeste, J.M. Gernikako arbolen lorategiak, 3. Telefonoa: 943 65 10 40.

HITZAK ez du bere gain hartzen eugunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

Agurrak

AGURRAK
943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

●●●● **agurrak**

19-90

Euskal Herria plaza, 5 • TOLOSA • Tel.: 943 119 017

Mauka berria GAURKO ESKAINTZA

Zaldi gainean ibiltzen ikasi

ARETXALDE ZALDITEGIA
Aretxalde, 89
LEZAMA 48112 - BIZKAIA
Tel.: 659 453 339
marcoecuestre@gmail.com

Prezioa **60€**

www.mauka.eu **berria taldea**

saridunak sarrerak

HITZAK harpidedunentzat **2 sarrera pare** ditu

TXAKOLIN EGUNA

- Maria Jesus Murua (Alegia) Irailak 21, larunbata
- Mari Jose Mendizabal (Villabona) 16:00etan Amasan

Sarrerak leihatilan bertan izango dituzue